Hondarribiko Udala

A Eredua

DIRULAGUNTZA ESKAERA

1.- Eskatzailearen datuak

Izen-deiturak edo izen soziala			NAN-AIZ-IFK
Helbidea	Udalerria	PK	Telefonoa(k)
E-posta	Elkartearen Erregistro Zenbakia		

2.- Ordezkariaren datuak (hala badagokio)

Izen-deiturak edo izen soziala			NAN-AIZ-IFK
Helbidea	Udalerria	PK	Telefonoa(k)
E-posta	Kargua		

3.- Banketxea (dirulaguntza sartzeko)

Banketxea	Kontu korrontearen zenbakia
	ES

4.- Aurkezten diren proiektuen zerrenda

Zein alorretarako (1)	
Proiektuaren izena	
Dirulaguntzaren zenbatekoa	
(1) 1 – Turismoa; 2– Kultura; 3– Kirolak; 4- Gizarte Zerbitzuak; 5 – Gazteria-Hezkuntza; 6 – Euskara; 7 – Merkataritza; 8 – Hirigintza	

5.- Aurkezten diren agiriak, deialdiaren oinarrietan hala eskatuta

- ☐ Dirulaguntza-eskabide normalizatua.
- ☐ Nortasuna egiaztatzeko agiria.
- ☐ Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- ☐ Kontuaren titularitatea egiaztatzen duen ziurtagiria.
- ☐ Proiektua azaltzen duen txostena.

6.- Beste laguntza edo dirulaguntzen adierazpena

ADIERAZTEN DU:

☐ EZ duela helburu berarekin inolako laguntza edo dirulaguntzarik eskatu edo lortu beste Administrazio edo Erakunde Publikoetatik.

☐ Eskatu duela edo lortu duela helburu berarekin laguntza edo dirulaguntzarik beste Administrazio edo Erakunde Publikoetatik. Ondoren dagoen taulan daude jasota

ERAKUNDEA	DESKRIPZIOA	ESKATUA	EMANA	ZENBATEKOA
		☐	☐	
		☐	☐	
		☐	☐	
		☐	☐	

Eta datozen hamabi hilabeteetan helburu bererako eskatutako eta/edo jasotako edozein laguntza edo dirulaguntza aldaketa edo eskabide Hondarribiko Udalari azaltzeko konpromisoa hartzen dut.

7.- Erantzukizunpeko adierazpena

ONURADUNAK BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:

I.- Pertsona edo entitatea dirulaguntza jasotzeko beharrezko egoeran dagoela edo oinarri arautzaileetan aurreikusitako inguruabarrak betetzen dituela.

II.- Ez dagoela sartuta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan adierazitako inongo inguruabarretan, horietan galarazten baita dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzailearen izaera lortzea, non eta dirulaguntzaren izaeragatik hura arautzen duen araudiak salbuesten ez badu.

III.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.1 eta 24.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera

- Ez duela urratzen emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa honakoei dagokienez: helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua eta/edo estatutuak.
- Ez duela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ondoriozko debekurik.
- Ez duela sexu-bereizkeria egiteagatik administrazio- zehapenik eta/edo zehapen penalik.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege organikoan ezarritako betekizunak betetzen direla.
- Onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan ez duela sexuagatiko bereizkeria egiten.

8.- Sarrera eta gastuen aurrekontua

DIRU-SARRERA GUZTIAK

KONTZEPTUA	KOPURUA EUROTAN
GUZTIRA	

GASTU GUZTIAK

KONTZEPTUA	KOPURUA EUROTAN
GUZTIRA	
EMAITZA	

9.- Dirulaguntzak jasotzearekin batera hartzen diren konpromisoak

1) Egitasmotik eratorritako erantzukizunak bere gain hartzea.
2) Behar diren baimenak lortzea.
3) Egitasmoa garatzen ari dela gertatzen diren gorabehera guztiak Udalari jakinaraztea, gertatu bezain laster.
4) Dirua gastatzen ez bada, dirulaguntza itzultzea.
5) Helburuak funtsean aldatuz gero, dirulaguntza itzultzea.
6) Udalak ezarritako betekizun guztiei eta bete beharreko arauei men egitea.

10.- Elkarreragingarritasunari buruzko informazioa

Hondarribiko Udalaren dirulaguntzak emateko Udal Ordenantzaren 13. artikuluaren arabera, datuen bitartekaritzarako NISAE (Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragintasunerako Nodoa) plataformaren zerbitzuen bidez, gai honetako eskumena duen sailak zuzenean egiaztatuko ditu behean aipatutako lagatzaileen agiriak, dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen diren ala ez zehazteko, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu modu arrazoituan. Bereziki, honako datu hauek kontsultatuko dira:

- Foru Aldundiak: Zerga betebeharrak egunean diren.
- Gizarte Segurantza: Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean diren.
- Hondarribiko Udalak ofizioz egingo du Udalarekiko zorren datuei buruzko kontsulta.
- Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistro Orokorraren bidez, honako hau egiaztatuko da:
    - Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatu izanaren ziurtagiria.
    - Entitatearen estatutuak.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikuluaren arabera, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka eginez gero, eskubide hori baliatzeko horiek izapidetzeko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

☐ Aurka nago eta eskatutako dokumentazioa aurkezten dut.

Lekua eta eguna .....

Iz

Hondarribiko Udala

DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrean (DBEO) ezarritako informazio-betebeharra betetzeko, jakinarazten da Hondarribiko Udala tratamenduaren arduraduna dela, eta helbidea Kale Nagusia 20, Hondarribia (Gipuzkoa) P.K.: 20280 eta helbide elektronikoa DBO-DPD@hondarribia.eus dituela.
Tratamenduaren helburua dirulaguntzen eta laguntza publikoen eskaerak kudeatzea da, besteak beste, betekizunak egiaztatzea, ebaluatzea, ematea edo ukatzea erabakitzea eta, hala badagokio, dagozkien ordainketak kudeatzea.
Datuak egiaztatu behar dira, tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebehar bat baita edo interes publikoa betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko betebeharra baita.
Datuak komunikatu ahal izango zaizkie arlo honetan eskumena duten beste Administrazio Publiko batzuei, hala nola, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta HABEri. Gainera, datuak Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalari eta finantza-erakundeei komunikatu ahal izango zaizkie.
Eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta mugatzeko, informazio gehigarrian azaltzen den bezala. Baita Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari erreklamazio bat aurkezteko ere.
Gure web-orrian kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza, datuen babesari buruzko atalean: www.hondarribia.eus